



MILAKA LANGILE KALERA ATERA DIRA SEKTORE PUBLIKOAREN ALDE.

Joan den ostegunean, apirilaren 22an, milaka langile kalera atera gara sektore publiko indartsu baten alde. Sektore publiko horrek kalitatezko zerbitzuak eskaini ahal izango ditu, gizarte-beharrak asetzeko.

Pairatzen ari garen pandemia honek gauza asko jarri ditu agerian; horietako bat da zerbitzu publikoen sare indartsu eta kalitatezkoak edozein gizartetan duen garrantzia. Hori da edozein gizarteren giza garapena hobekien neurtzen duen balioetako bat.

Gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa eraikitzeko bermerik onena aurrekontuetan ondo egituraturako eta hornitutako sektore publikoa izatea da, gizartearen beharrak asetzera bideratuta dagoena. Ongizatearen estatua deritzona eraikitzeko eta finkatzeko oinarria da. Ongizatearen egoera hori behin eta berriz kolpatu eta murriztu dute estatuko zein hemengo gobernuek.

Eta pandemia honetan ikusi dugu baliabide material eta pertsonalen faltak eragina duela, eta asko oinarrizko balioak babestu behar direnean, hala nola osasuna, bizitza edo zentzuzko denboraldietan bizi-baldintza duinak mantendu ahal izateko beharrezkoak diren laguntzak edo zerbitzuak eduki ahal izatea. Sektore publikoa artatzen duten langileen konpromisotik soilik salbatu ahal izan da egoera.

Horregatik, sektore publikoa defendatzea ez da soilik enplegatu publikoen lan-baldintzak hobetzea, baizik eta, batez ere, gizarte osoarentzat funtsezkoa den zerbait defendatzea.

Horregatik, mobilizazio hauekin eta gure eguneroko ekintza sindikalarekin, honako puntu hauetan oinarritutako defentsa hau jarri nahi dugu mahai gainean:

1. Pertsonalean nahiz baliabide materialetan egindako murrizketa guztiak

lehengoratzea. Historiak erakusten digu krisialdi orotan sektore publikoan eta gizarte-prestazioetan murrizten den lehenengo gauza dela. Oraingoan ezin dugu onartu.

2. Kalitatezko enplegu duin baten aldeko apustua egitea, gaur egun dagoen behin-behinekotasun tasa lotsagarriarekin (ia % 40) amaitzeko oinarriak jarritz. Lanpostuak finkatzeko prozesu bat eta kontratazio-sistema propio bat behar ditugu, administrazio honetan lanean hasten den orori gutxieneko segurtasun juridikoa, garapen profesionala eta pertsonala bermatzeko.

3. Kanporatze-prozesuekin amaitzea eta daudenak lehengoratzea.

4. Beste behin ere, ikastetxean Lan Harremanen eta Gizarte Babesaren Euskal Esparrua, Gizarte Segurantzaren Lege propioa eta Administrazioan Kontratazioari buruzko Legea izateko beharra jartzea. Beste behin ere, agerian geratu da ez dagoela lege-tresna nahikorik gure errealitatetik bertatik erabili eta esku hartu ahal izateko.

5. Eta Justizian, gainera, Eusko Jaurlaritzako langileekin erabat parekatzeko eta homologatzeko borrokan jarraitzea.

2021-04-23